

kultur leihoa • kultur leihoa • kultur leihoa

ezagutzen al duzu Donostia?

Parada

Beti Altza herrikoa izan den oinetxe ospetsua dugu Parada. Mirakruz gainaren (gure zaharrek Binagrene deitzen diote gain honi gaur ere) erdi-erdian, Donostiatik Pasaiara zihoan bide zahar-raren ondoan dago. Ezin hobea zen etxe honen koka-pena: eguterari begira Uliamendiko bizkar leun batean. Garai haiek bukatu ziren eta lur emankor haiek etxez bete ziren. Etxe artean, baina hor dugu gaur ere zutik Parada zaharra, historiaren lekuko. Dakigunez, Donostia hiria gaskoinez biztanletua izan zen XII. mendean; horien artean izango ziren paradatarrak ziur aski. Parada abizena XIII. mendetik jadanik aipatua dugu Donostian. Besteak beste, Serapio Mujika historialariak idatzi zuen Gipuzkoako gaskoinez eta berak dio, Arturo Kanpion idazle handiari hartutako



Parada oinetxearen ataria. Harrobian irakurtzen da: «Solar de Parada».

zita batean, honek gaztelaniaz idatzitako esaldi hau: «Gonzalo de la Parada, franco de San Sebastián, en el año 1261». P. Barrio Panguak argitaratutako 1566. urteko Donostiako erroldan,

berriz, gaur hirian desagertua den Amassorrain kalean «Tomás de la Parada de la casa de la Parada jurisdicción de esta villa» errejistratzen da. Mirakruz-gaineko oinetxe ospetsuaren ondo-

rengoak dirudite Donostiako udal-barrutian dauden Parada Altza-Sarruetako eta Parada Lugaritzeko base-riek.

JOSU TELLABIDE

**ALKANDORAK**  
**ARROPADENDA**



Andia 1 - ☎ 42 03 49 DONOSTIA

**MaiKo Sport**

K I R O L A K

Segundo Izpizua 20  
Tfnoa.: 29 35 45 • DONOSTIA

**HERRIA**



- Beti gure preso politiko eta errefuxiatuen alde
- Bokatak, plater konbinatuak eta alaitzeko euskal giroa

**TABERNA** IKATZ kalea

**Casa MDAuri**

**KOLTZOI ETA SOMIER MARAKARIK ONENAK**  
**NEURRIKO OHE-ZORROAK**  
**BURUKOAK**

Fermin Kalbeton 42 • Tfnoa.: 42 33 28